

# UDALA ETA HERRITARREN ARTEKO PARTAIDETZA-SISTEMA ERATZEKO PROZESUA

2011KO ABENDUA



Durango, 2011ko abendua



## Aurkibidea

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. HELBURUAK</b>	<b>4</b>
<b>3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA</b>	<b>5</b>
<b>4. METODOLOGIA</b>	<b>7</b>
<b>5. PARTE-HARTZEA</b>	<b>10</b>
<b>6. ONDORIOAK-IGORRERAKO BALIAGARRIAK</b>	<b>11</b>
<b>7. BALORAZIO OROKORRA</b>	<b>15</b>
<b>Eranskina: Esperientzien fitxak</b>	<b>17</b>

## 1. Sarrera

Igorreko Udalak parte-hartzearen kultura eta kudeaketan urratsak egiten jarraitu nahi duela eta, martxan dituen parte hartzeko mekanismo eta esperientziak baloratu eta kontuan hartuta, herritarrekin batera adostu eta eratu nahi du Udalerria kudeatzeko partaidetza-sistema: zeinek eta zertarako parte hartu? Non, zertan, zein gunetan parte hartu? Nola parte hartu? Zenbat parte hartu? Zein funtzioekin parte hartu? Galdera horien erantzunek lagunduko dute zehazten herritarrak non eta nola parte hartu; eta orduan finkatuko dira herritarren ikuspegiak eta iritziak jaso eta kudeatzeko moduak, udal-eragile eta herritarrak batu, ikuspegiak partekatu eta erabakiak hartzeko guneak eta espazioak, erlaziozko topaketa-moduak... Hau da, mamian arakaturik, eta beti ere, orain arte abiatu diren prozesuak kontuan hartuz, udaleko eragileek eta herritarrek elkarrekin lan egiteko sistema iraunkorra ezartzeko prozesua bideratu nahi da.

2011ko udazkenean prozesu horren lehen fasea garatu dugu. Lehenengo fasearen helburua Igorreko Udalak parte-hartzearen inguruan orain arte egindako egitasmoen azterketa eta sistematizazioa egitea zen. Izan ere, Igorreko Udalak azken urteetan eragile eta herritarrak udalgintzan inplikatzeke parte hartzeko bideak zabaltzen jardun du, Udaletik bideratutako egitasmoetan parte hartzeko prozesuak martxan jarri eta poliki-poliki herriko sare soziala osatuz. Atzera begiratu nahi izan dugu, aurrera begirako irakasgaiak atera asmoz.

Horretarako Igorreko Udalak parte-hartzeko bi foro antolatu ditu 2011ko abenduan. Lehenengo foroan Igorrek orain arte martxan jarritako esperientziak ezagutu, aztertu eta baloratu ditugu, aurrera begirako ikasgaiak edo kontuan hartzekoak identifikatzeko. Eta bigarren foroan beste udalerririk batzuetako esperientziak (Otxandio eta Sevillako Marinaleda) ezagutzeko aukera izan dugu, praktika on horietatik ikasi eta Igorrera begira hobetu beharrekoez hausnartzeko.

Txosten honetan, bi foro horien berri jaso dugu, zehazki, honako atalak jaso ditugu:

- Prozesua: egitasmoaren helburuak, emandako urratsak, metodologia, parte-hartzea...
- Identifikatu diren elementu interesgarriak, aurrera begira Igozkerako baliagarriak izango direnak.
- Balorazioa: parte-hartzaileek eta Talde Teknikoak egindako balorazioa.

## 2. Helburuak

Hona hemen egitasmo honen bitartez lortu nahi izan ditugun helburuak:

### **HELBURU OROKORRA:**

Igorreko herritarrekin batera, Udalerria kudeatzeko partaidetza-sistema diseinatzea, orain arte egindakoa baloratuz eta parte-hartzea oinarrian duten politika integralak sustatuz.

### **HELBURU ZEHATZAK:**

- ⇒ Igorrek orain arte martxan jarritako parte-hartzea oinarrian duten prozesuak aztertzea eta baloratzea.
- ⇒ Parte hartzean oinarritutako herri-demokrazian eredu diren zenbait esperientzia aztertzea eta horietatik praktika onak lortzea eta Udaletik benetako parte-hartze prozesuak bultzatzeko gakoak identifikatzea.

### **ZEHARKAKO HELBURUAK:**

- Herritarrak subjektu aktibo izatea, eta egindako lanaren kontzientzia hartuz, herrigintzan duten funtzio eta zereginaz jabetzea.
- Parte-hartzearen bidez garapen pertsonal eta komunitarioa sustatzea; batetik, subjektuen autonomia garatuz eta bestetik, sozializatorako guneekin eta parte-hartzearen ikuspegi ezberdinetatik abiatuta, kontzientzia kolektiboa sortuz.
- Udalaren kudeaketa-eredua parte-hartzean oinarritzea, eta herritarren nahi eta beharrak kontuan hartu eta asetzen dituzten politika publikoak sustatzea.
- Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea, zuzenean eragindakoaz gain gutxien parte hartzen duten taldeen parte-hartzea bereziki bultzatuz, adibidez, gazteena eta emakumeena.

## 3. Prozesuaren deskribapena

Hona hemen prozesu honen urrats nagusien deskribapena:

### 1. AURRELANAK

#### 1.1. Talde teknikoa osatzea eta abian jartzea.

Talde Teknikoa izan da egitasmo hau antolatzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko arduraduna, baita egitasmoa garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzeko ere. Hori dela eta, lehen urratsa talde hori sortzea izan da. Taldea honako kide hauek osatu dute: Iñaki Iturriotz (parte-hartzeko zinegotzia), Gotzone Amuriza (herritarra, parte-hartze kontuetan kolaboratzailea), Iñigo Uriarte (EAJko zinegotzia) eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak (Amaia eta Oihana). Talde honek prozesu guztian zehar 2 batzar egin ditu.

#### 1.2. Komunikazio-plana lantzea eta garatzea.

Komunikazioak garrantzia berezia hartzen du gisa honetako egitasmoetan. Horretarako, Talde Teknikoan komunikazio-plana diseinatu genuen, honako helburuarekin: Igorretarrei egitasmoaren berri ematea, parte hartzeko dituzten aukerak jakinaraztea eta azkeneko emaitza (txostena) helaraztea.

Aurrelanan atal honetan, hainbat ekintza burutu genituen komunikazioaren ikuspegitik:

- Leloa erabaki: herritarraz herritarrantzako.
- Webgunean prozesuaren inguruko informazioa eskegi.
- Atarietan bandoa jarri, prozesuaren eta batzar-egunen berri emateko.
- Komunikabideekin harremanetan jarri eta prentsa-oharra helarazi, prozesuaren eta batzar-egunen berri emateko.
- Gorbeialden alkateari elkarrizketa egin.
- Herriko gune estrategikoetan kartelak ipini.
- Langileekin aurkezpen-batzarrak egin parte hartzera gonbidatuz.
- Gonbidapenak bidali eta telefono deiak egin: zinegotziei, beste prozesuetan parte hartu zuten herritarrei, herri-langileei.

### 2. HERRITARREN FOROAK



2 foro egin ditugu herritarrekin, 2,5 ordukoa lehenengoa eta bigarrena 3 ordukoa, abenduaren 1ean eta 15ean. Batzar horietan parte-hartzeko metodologia erabili dugu eta parte-hartzea bideratzeko teknika ezberdinak erabili ditugu. Talde txikitan lan egiteko guneak sortu ditugu, eta lantalde osoari ere bere espazioa eskaini diogu.

Helburua denok ikastea eta aurrera begira Igorrerako baliagarriak izan daitezkeenak denon artean identifikatzea izan da.

Bi foroen artean komunikazioa ere zaindu dugu. Bilerak batetik bestera parte-hartzaileei deialdia sms eta telefono-dei bidez egin da, webgunean ere informazioa berritu da, eta Begitun eta beste komunikabideetako agendetan prozesuaren berri eman da.



### **3. BUKAERAKO URRATSAK**

Azken fase honetan hiru lan nagusi egin dira: egindako lana txosten baten jasotzea, prozesua baloratzea eta gizarteratzea.

#### **3.1. Azken txostena**

Egindako lana txosten batean jaso dugu. Txostenak batez ere prozesuaren inguruko datuak eta emaitzak batzen ditu.

#### **3.2. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa**

Prozesuaren balorazioa bi gunetan egin da: herritarren foroan eta Talde Teknikoan. Balorazio horretan hainbat puntu hartu dira kontuan: parte-hartzea, giroa, egindako lana, metodologia, Talde Teknikoaren funtzionamendua, komunikazioa, etab. Txosten honetan jaso dugu balorazio horren laburpena.

#### **3.3. Prozesuaren eta emaitzaren sozializazioa**

Azken urratsa egindako lana gizarteratzea izan da. Horretarako hainbat ekintza egin ditugu:

- Txostena parte-hartzaile guztiei bidali zaie.
- Udaleko langileen artean ere banatu da.
- Webgunean zintzilikatu da.
- Hedabideetan emaitzaren berri eman da.



## 4. Metodologia

Elhuyar Aholkularitzak Reflect Ekintza ikuspegi metodologikoan oinarritzen du bere lana. Lan egiteko ikuspegi berri hau 1993an sortu zen Reflect izenarekin, El Salvadorren, Ugandan eta Bangladeshen egindako esperientzia pilotuetan, Paulo Freire brasildar pedagogoaren ikuspegi psikosoziala eta DRPKo (Diagnostico Rural Participativo) teknikak helduen alfabetatze-prozesuetan elkarrekin aplikatu zirenean (Archer,1997).

Lehenengo esperientzia horiek prozesu baten hasiera besterik ez ziren izan, orduetik gaur egunera, erabateko eboluzioa eta hazkundera izan baitu lan egiteko era honek, eta gaur egun Asia, Amerika, Afrika eta Europako 58 herrialdetan erabiltzen da.

Hego Ameriketara, hasierako esperientziak berriz aztertu ziren "Educación Popular" (EP) delakoaren praktikak eta parte hartzeko ikerketa (IAP) kontuan hartuta. Horren ondorioz, hausnarketatik ekintzetara pasatzeak indar berezia hartu zuen Hego Ameriketako Reflect Ekintza esperientzietan.

Prozesuen perspektiba dialektiko horregatik eta errealitatea bera prozesu horien bidez aldatzeak hartzen duen garrantziagatik, Hego Ameriketara Reflect Ekintza izena hartu zuen.

Ikuspegia behin eta berriz aberastu da, eta perspektiba, teoria eta praktika desberdinen eraginez berregokitu egin da; izan ere, taldeek, esperientzia berriak egiten dituzten bakoitzean, haien praktika eta posizionamenduekin aberasten dute.

Reflect Ekintza, beraz, ikuspegi dinamikoa da, eta sortu zenetik, etengabe ari da aldatzen eta interesgarriak diren teoria eta praktiketatik ikasten. Horrela, aipatu beharra dago ondorengo hauen eragina jaso duela: teoria eta praktika feminista, ikuspegi etnografikoa, mugimendu indigenak eta haien perspektiba interkulturala, konstruktibismoa, baita DRPK izandako bilakaera ere (gaur egun APA, Aprendizaje Participativo y Acción).

Ikuspegiak dituen oinarri kontzeptualak eta metodologikoak argi izatean, edozein proiektutan eta edozein talderekin aplikatu daiteke.

Hori dela eta, Reflect Ekintza hainbat talde desberdinekin erabiltzen ari dira gaur egun: errefuxiatuak, desplazatuak, talde etniko minoritarioak, hirietako auzo marjinaletako pertsonak, landa-lurreko jendea, arrantzaileak, meatzariak, emaginak, emakume-taldeak, enpresetako langileak, unibertsitateko ikasleak, gazteak, haurrak, kaleko haurrak, sexu-langileak eta abar.

Era guztietako lanak egiteko aplikatu ohi da; adibidez: hiritartasuna eta gobernabilitatea lantzeko, hizkuntza gutxituen normalizazio-prozesuetan, ikuskaritza soziala egiteko, aurrekontuak aztertzeko, giza eskubideak lantzeko, emakumeen eskubideak lantzeko, etxeko biolentziaren aurka, udal-planifikazioa egiteko, azterketa politikoa, osasuna, Hiesa, osasun sexuala, ura, nekazaritza, hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, gatazkak ekiditeko, diru-sarrerak lortzeko, organizazioen garapena, erakundeetan botere-harremanak, jarrerak aldatzeko, aurreiritziak kentzeko, genero-harremanetan, botere-harremanetan, kultura arteko harremanetan, hezkuntza elebidunean, alfabetatze-prozesuetan eta abar eta abar.

Talde askorekin eta gai desberdin asko lantzeko erabil daiteke, metodologia zehatza izatetik ikuspegi izatera pasatu zelako.

Ikuspegi honekin lan eginez gero, prozesua (pertsonak beraien artean eta errealitatearekin erlazionatzeko eta jarduteko duten modua) izaten da giltzarri, eta edukiak edo gaiak bigarren mailara pasatzen dira. Reflect Ekintzako esperientziak erakutsi dute aldaketa indibidualak eta kolektiboak nola eta zergatik lortzen diren.



Laburbilduz, prozesu honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, gure errealitatea, bai gertukoa, baita estrukturala ere, “irakurri” egiten dugu.

Poliki-poliki, prozesua subjektibitatean oinarriturik eraikiz joaten da eta subjektibitatearen sozializazioak taldearen posizionamendua dakar berekin.

Etengabeko joan-etorri dialektikoan murgildurik, batetik, ekintza-hausnarketa-ekintza (praktika-teoria-praktika), eta, bestetik, pertsona-taldea-pertsona, gure errealitate subjektibo eta objektiboa sistematizatu eta barneratzen goaz, eta pertsona eta talde bezala berriz posizionatzen gara. Prozesuaren kontrola parte-hartzaileek dute prozesuaren urrats guztietan.

Reflect Ekintzaren ikuspegiarekin egindako prozesuek parte hartzaileen boteretzea (empowerment) lortzen dute.

Taldeko kideak izaten dira, gehienetan, prozesua bideratzen dutenak. Horrela izaten ez denean, bideratzailea prozesuaren parte izaten da, beste guztiak bezalaxe, eta baztertu egiten du kanpotik etorritako behatzaile objektibo eta neutroaren rola. Bi kasutan taldeak izaten du prozesuaren kontrola, ez dagoelako taldean ukiezina den pertsonarik.

Prozesuan zehar, prozesuan bertan gertatzen ari diren botere-harremanak, genero-harremanak eta kultura arteko harremanak aztertzen dira. Horrek subjektibitateetik eta norberaren bizipenetatik kontzientzia hartzea ahalbideratzen du; batetik, aldaketa eragiteko beharrezkoak diren baldintza subjektiboak eta objektiboak sortuta; eta, bestetik, boteretzea lortuta.

Ondoren Reflect Ekintzak dituen ezaugarriak zerrendatuko ditugu:

– **Parte-hartzea eragiten du.**

Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.

– **Bibentziala da.**

Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.

– **Talde-izaera sendotzen du.**

Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da.

Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.

– **Kalitatezko parte-hartzea lortzeko lan-eskema mailakaturik da.**

Banakako lanetik hasita, talde txikitan eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.

– **Bisuala da.**

Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.

– **Denen artean eraikitako prozesua bideratzen du.**


– **Aldaketa eragiten du.**

Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Laburbilduz, hau lortzen da:

**Taldeko pertsonen esperientzietan oinarrituta eta parte-hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatzen dira.**

Hona hemen idatziz azaldutakoa grafikoki irudikatzen duen eskema:



Beraz, ikuspegi metodologiko honekin lan egin dugu proiektu honetan, parte hartu duten subjektuen parte-hartzea sustatuz eta eraikuntza kolektiboa landuz.



**IGORREKO  
HERRIA**  
Danon aukera!

## 5. Parte-hartzea

Prozesuan 70 lagunek hartu dute parte, 40 gizon eta 30 emakumek. Lehenengo foroan 60 lagun elkartu ginen eta bigarreanean 44. Kopuruari dagokionez, parte-hartzea handia izan da, helburua 30 lagun inguru elkartzea zen eta bikoitza lortu dugu.

Parte-hartzaileen perfilari dagokionez, adinari begiratuz gero, gazte batzuk urreratu badira ere, nahiko nabarmena izan da 30 urtetik beherakoen hutsunea. Hizkuntzari dagokionez, erdaldun gutxik hartu dute parte. Hurrengo prozesuetarako bereziki zaindu beharko ditugu bai gazteen baita erdaldunen parte-hartzea. Gainontzean, auzoetako batzuk parte hartu dute, merkatariak, gurasoak, udaleko langileak... , gutxi gorabehera danetariko jendea egon da.

Amaitzeko, urreratu direnak planteatu diren dinamika eta ariketetan aktiboki parte hartu dute eta egindako balorazioak positiboak izan dira.



## 6. Ondorioak, Igorrerako baliagarriak

### 6.1. IGORREKO PARTE-HARTZE ESPERIENTZIEN ONDORIO OROKORRAK ETA AURRERA BEGIRA KONTUAN HARTZEKOAK:

Foroetako parte-hartzaileen iritziz, orain arteko parte-hartzeko prozesuek parte-hartzeko kultura eta bidea zabaldu dute Igorren. Oso prozesu ezberdinak egin dira, eta gaiaren arabera parte hartu duen pertsona-kopurua ere ezberdina izan da. Azken urteetan garatutako 9 prozesu aztertu ditugu, talde txikietan ondorioak atera ditugu eta aurrera begira hobetzekoak identifikatu. Hona hemen emaitza:

#### Planifikazioa eta antolaketa

- **Urte sasoiak** eragina du parte-hartze prozesuen arrakastan. Esate baterako, uztailean inor gutxi agertuko da batzarretara. Beraz, parte-hartze prozesuak planifikatzerakoan garaia kontuan hartu beharko dugu.
- **Tokiari** dagokionez, jendearengana hurbildu behar gara, jendearekin egon euren espazioan. Esate baterako, Pleno batzuk auzoetan egin beharko lirateke.
- **Ordutegietan** bateragarritasuna kontuan hartu behar da, eta batzarren orduak behar ezberdinetara egokitu (merkatariak, gurasoak...). Berdintasun-plana lantzerakoan haurtzaindegi-zerbitzua eskaini zen, eta modu positiboan baloratu zen.
- Batzarrak **arloka eta auzoka** antolatzeak ikuspegi orokorra oztopatzen du (esate baterako, aurrekontuen prozesuan). Bakoitzak berea bakarrik ikusten du, eta parte-hartzaileak askotan beren interesak defendatzera joaten dira. Batzarrak hain sektorialak ez izateko metodologia berrikusi beharko litzateke.

#### Komunikazioa

- **Komunikazio-kanpainak** garrantzia handia dauka eta komunikazioan jokatzeko da askotan prozesuaren arrakasta. Prozesu guztian zehar zaindu beharreko alorra da, baina hasierako komunikazio-lana giltzarria izan ohi da.
- **Deialdiak** zaintzea garrantzitsua da, noiz, non eta nola egiten diren. Deialdia zehatza izan behar da, helburuak argi azaldu behar dira. Halaber, prozesuak aurrera egin ahala deialdiak nola egin erabaki beharko da; beti Udalak egingo dituen, beste kolektibo batzuen bidez zabalduko diren...
- Parte-hartzeko prozesuek **dinamikoak** izan behar dute eta prozesua etengabe elikatu behar da. Herritarrei momentu bakoitzaren berri ematea eta hartutako erabakien eta horretarako zergatien berri ematea garrantzitsua da, elkarrenganako konfiantza eraikitzeke eta frustrazioak ekiditeke. Hori dela eta, **itzulketa momentua** oso garrantzitsua da. Emaitzak askotan ez dira herritarren artean zabaltzen eta fruituak ez dira ikusten. Emaitza zabaltzeari garrantzia eman behar zaio. Esate baterako, herritar askok ez dute berdintasun-planaren edo immigrazio-planaren berri.

#### Parte-hartzaileak

- **Gaiaren** arabera, parte hartzeko interesa handiagoa edo txikiagoa izan ohi da eta, beraz, parte hartuko duen pertsona-kopurua ezberdina izango da.
- **Kanpoan geratu diren kolektiboak** kanpoan zergatik geratu diren aztertu behar da: etorkinak, zaharrak, ama gazteak, erdalduak... Prozesu askotan kolektibo berak dira kanpoan geratzen direnak, ez gara



eurengana iristen. Askotan jendea enteratzen da baina ez da hurbiltzen. Jendearen konfiantza irabazi behar da.

- Prozesuetan ematen diren iritziak ez dira beti herritarren iritziaren erakusgarri. Herritarren ehuneko txiki batek hartzen du parte prozesuetan eta, beraz, herritar batzuen ikuspegiak bakarrik hartzen dira kontuan. Kanpoan geratzen diren kolektiboen asmoak ere jaso beharko lirateke eta horretarako metodologia egokia erabili.

#### **Informazioa**

- **Informazio argi eta zehatza** eman behar da prozesu guztiak zehar.
- **Alternatiba guztiak** aurkeztu behar dira eta alternatiba guztiei tratamendu bera eman.

#### **Konpromisoa**

- Parte hartze maila ezberdinak egon ohi dira, eta konpromiso edo inplikazio maila ezberdinak. Oro har, oso jende gutxi arduratu asko hartzen ditu, eta **arduren banaketa** hobetu egin beharko litzateke.
- Herritarrak askotan ez gara nahikoa arduratzen, gutxiegi inplikatzeko gara, kultura faltagatik edota Udalaren aldetik gure proposamenei kasurik ez zaielako egiten.
- **Adostasun politikoa** aurretik landu behar da, eta prozesuaren emaitza aurrera eramateko borondate politikoa egotea ezinbestekoa da.

#### **Dinamizazioa**

- Dinamizatzaileak **bertakoak** direnean arrakasta errazago lortzen da.
- Batzarrak modu egokian dinamizatu behar dira, eta **dinamizazio-lanak** ondo egiteko entrenamendua behar da.
- Hasierako interesa eta **parte-hartze maila mantentzeko neurriak** hartu behar dira.
- Kasu batzuetan garrantzitsua da **bitartekariak** egotea, izan ere, auzoetan gatazkak egon daitezke auzotarren artean edo Udalaren eta auzoaren artean.

#### **Emaitza**

- Prozesua **bukaerara arte** eraman behar da parte-hartzaileen frustrazioa ekiditeko. Prozesu batzuen emaitza-txostenak kutxan sartuta geratu dira, esate baterako, immigrazioko prozesuarena, berdintasun-planarena, Agenda 21... Plan askori ez zaie irteerarik ematen eta webgunean geratzen dira.
- Zenbat eta **parte hartze handiagoa** emaitza hobea izan ohi da. Horren erakusle da euskara-plana. Parte hartze handia egon da eta lan asko egin da. Kolektibo ezberdinak inplikatzeko lortu behar dugu, ikuspegi guztiak bermatzeko.
- Parte-hartze prozesuan bertan herritarren proposamenak **sailkatu** egin behar dira ezarritako irizpideen arabera (gaika, lehentasunen arabera...).

#### **Balorazioa**

- Parte-hartze prozesuaren amaieran **balorazioa** egitea komeni da edo gogobetetze-inkestak betetzea.
- Prozesuak **neurtu eta baloratu** egin behar dira, eta horretarako **adierazleak** zehaztu.

#### **Erabakimena eta konpetentziak**

- Parte hartzeko **eredu** argi bat ezarri behar da: noiz parte hartu, zertan, zertarako, nola...
- Parte-hartzeko **foroak eta Udaleko funtzionamendua** (plenoak...) uztartzeko moduak topatu behar dira.

Prozesu konkretuen gainean egin dugu lan, eta herritarrek prozesu horietako batzuk hobetzeko proposamenak ere egin dituzte:

- Prozesu batzuk aldaketak behar dituzte eta garai berrietara egokitu behar dira. Esate baterako, jaiak. Antolaketan koadrila gazteek hartzen dute parte eta ez dituzte beste kolektibo batzuentzat gauzak antolatzen. Perfil ezberdineko jendeari deialdia bide ezberdinetatik egin beharko litzaioke.
- Pleno batzuk morbo gutxi edo gantxo gutxi dute. Herritarrek udal ordezkariak presionatzeko gune edo aukera moduan ikusi beharko lituzkete plenoak. Halaber, plenoetako galdera-erantzunak arindu egin beharko lirateke, plenoari solemnidadea kendu behar zaio. Auzoak inplikaturik dauden kasuan, plenoak auzoetan egiteko aukera aztertu beharko litzateke.
- Immigrazio-planean jende gutxi hartu zuen parte, etorkin batzuen arten harreman txarra dagoelako eta gure aldetik interes gutxi izan dugulako. Elkarbizitza ezin da soilik Udalaren esku utzi, guztiok hartu behar dugu parte elkarbizitza hobetzen.

## **6.2. OTXANDIO ETA MARINALEDAKO ESPERIENTZIEN ELEMENTU INTERESGARRIAK ETA IGORRERAKO BALIAGARRIAK, AURRERA BEGIRA KONTUAN HARTZEKOAK:**

Aurkeztu diren bi esperientziak interesgarriak izan direla baloratu da, baina hurbiltasunagatik Otxandiokoaren gainean identifikatu dira batez ere Igorrerako baliagarriak izan daitezkeenak eta aurrera begira kontuan hartu beharko liratekeenak.

### **Ikuspegia**

- Parte-hartze prozesuen bidez herriaren ikuspegi globala lantzea eta etorkizuneko ikuspegia adostea. Azken batean, nahi dugun herri-motaren, herri-nortasunaren oinarriak adostea.



### **Helburua**

- Prozesuaren helburua komuna, benetakoa eta adostua izatea.

### **Parte-hartzea**

- Kolektibo guztien parte-hartzea lortzea (hizkuntza, generoa, ideologia, etnia desberdinetako pertsonak) eta horretarako bideak jartzea: komunikazioa, gertuko harremanak, baliabideak... Subjektua ez da homogeneoa, askotarikoa baizik eta garrantzitsua da guztien ikuspegiak kontuan hartzea.
- Gizarte eragileak prozesuaren parte aktibo izatea.
- Adituekin ere lan egitea prozesuaren momentu batzuetan, gai estrategikoen inguruko azalpenak emateko.

### **Komunikazioa**

- Informazioa eman eta gardentasunez jokatzeko haratago joatea: feed back-a lantzea eta zaintzea. Elkar elikatzea eta aberastea, eraikuntza kolektiboaren bidetik.
- Deialdiak egiterakoan, jendearengana joatea. Idatzizko deialdiez gain, kolektibo eta pertsona ezberdinegana hurbildu egin behar da, euren guneetara joan, harremanak landu.

### **Eredu propioa**

- Igorreko eredua Igorretarrek lantzea, herriak dituen aukera eta traba guztiak kontuan hartuta.
- Bidea txikitik handira egitea.



**IGORREKO  
HERRIA**  
Danon aukera!

#### **Egitura, antolamendua**

- Talde Eragilea, Herritarren Kontseilua... lantaldearen eta egituren osaera eta izaerari buruzko irizpideak landu eta kontrastatzea.
- Talde txikiak sortzea, eta hori zaintzea. Kalitatea zaindu behar da, kantitateaz gain.

#### **Lidergoa**

- Lidergoa zaintzea. Lidergoa garrantzitsua da, baina herritarren parte-hartzean oinarritutakoa izan behar da.

#### **Formazioa**

- Jendea formatu egin behar da erabakiak hartzeko eta parte-hartzearen kulturari hezi egin behar da. Prozesuak arreta berezia jarri behar du formazioaren alor honetan.

#### **Konpromisoa**

- Herritarrek erabakiak hartzerakoan parte hartzeaz gain, gauzatzerakoan ere parte hartzea, ardurak hartzea.
- Alderdi politiko guztien parte-hartze aktiboa bilatzea, Udala kudeatzen duen alderdia aldatzean proiektuak bertan behera gera ez daitezen.



#### **Izaera, jarrera**

- Ekinak izatea, erabakitasunez jokatzeko, izaera bultzatzailea izatea.
- Hanka sartzeak onartzea, beldurrik ez izatea eta esperimintatzea, ausartak izatea.
- Guztion ongizatea bilatzea, berekoikeriatik eta interes pertsonalen defentsa hutsetik ihes eginez.

#### **Auzolana**

- Auzolana berreskuratzea: errekek garbitu, bideak berriztatu...

#### **Emaitza**

- Emaitza txikiak lortzen eta ikustarazten joatea, jendearen ilusioa eta inplikazioa bizirik mantentzeko.

#### **Aurrekontu parte hartzaileak**

- Eredu lotesleagoa lantzea eta praktikara eramatea.

## 7. Prozesuaren balorazio orokorra

Prozesuaren amaieran, herritarren foroan eta Talde Teknikoarekin egin dugu prozesuaren balorazioa. Bi guneetan modu positiboan baloratu da prozesua. Hona hemen, xeheago, herritarrek egindako balorazioaren emaitza:

	herria	herria	herria	bikain
Parte-hartzea		✓ x x	x x x x x x x x x x	x x x x x x x x x x x x x x x x
Egindako lana		x x x x	x x x x x x x x x x x x x x	x x x x x x x x x x x x x x x x
Giroa			x x x x x x x x x x	x x x x x x x x x x x x x x x x
Lan egiteko modua		x x x x	x x x x x x x x x x x x x x	x x x x x x x x x x x x x x x x

Oro har, herritarrek gustura sentitu dira prozesuan zehar. Parte-hartzea, egindako lana eta lan egiteko moduan egon dira balorazio txarragoak. Gai hauekin lotuta taldean honakoak komentatu dira:

Parte hartzeari eta lan egiteko moduarekin lotuta, hiru gai komentatu dira:

1. Gazteen parte-hartzea eskasa izan dela. Lehenengo batzarretik bigarrenera neurri batzuk hartu badira ere, gazteei kostatzen zaie honelako guneetara hurbiltzea eta parte hartzea.
2. Erdaldunen parte hartzea ere eskasa izan dela. Prozesu guztietan gertatu ohi da gainera, eta kolektibo hori integratzeko moduak topatu behar ditugu. Gainera, 2. foroan ez dugu ondo kudeatu hizkuntzaren kontua. Kolektibo honekin ere hurrengorako hobeto landu beharko dugu beraien parte hartzea bideratzeko moduak.
3. 1.foroan egin genuen sarrerako dinamika batzuentzat deserosoa izan zela, eta horregatik 2.forora ez dira bueltatu. Batez ere gazteak sentitu ziren deseroso. Gai honekin komentatu dugu, berez, asmoa elkarren arteko konfiantza lantzea zela, ondoren talde txikietan lanketa egin ahal izateko, baina behar bada ez zen asmatu dinamikarekin berarekin. Dena den, ikasketa prozesu bat da,

orokorrean ez gaude ohituta ezagutzen ez dugun jendearekin hitz egitera, eta hori eginaz ikasi eta aberasten da.

Talde Teknikoari dagokionez, hainbat elementu baloratu ditugu:

- Parte-hartzaile kopurua. Prozesuan 70 lagun inguruk hartu dute parte, eta kopuru aldetik pozik gaude lortutako emaitzarekin. Gure espektatibak gainditu ditugu. Kolektibo batzuk identifikatu ditugu hurrengoan hobeto kudeatu beharko ditugunak: gazteak, erdaldunak, etorri berriak, auzoetakoak.
- Koordinazioa. Oro har, koordinazioa oso ona izan da eta horrek lanak ondo betetzea ahalbidetu du. 2 batzar egin ditugu koordinaziorako, eta behar izan dugun guztietan telefonoz edo posta elektronikoz egon gara harremanetan.
- Komunikazioa. Komunikazio-plana diseinatu bezala egin da. Hedabideetan nahikoa oihartzun izan du. Parte-hartzaileengana ere iritsi gara, telefonoa, bandoa, gonbidapen pertsonalak, sms-ak. Eta web-orrian prozesuaren berri eman dugu. Udaleko langileei aurkezpena egitea oso ondo baloratu dugu.
- Tokia eta ordutegia. Tokiari dagokionez, agian ez da egokiena izan jende-kopurua kontuan hartuta. Gainera, ez zen ondo entzuten eta hurrengorako mikrofonoa erabili beharko dugu. Ordutegiari dagokionez, berriz, parte-hartzaile batzuk larunbatean egitea proposatu dute.

## Eranskina : Igorreko esperientzien fitxak

<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-27
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Aurrekontu parte-hartzaileak</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Urteko diruak zelan erabili behar diren herriarekin zehaztea	ZEHATZAK Herritarrak udal kudeaketaz eguneratuta izatea. Udal kudeaketaren gardentasuna handitu
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA Irailean auzo batzarrak. Martxo-maiatzean jarraipen batzordea	BENETAKOA Iraila-urria
LANERAKO GUNEA (EGITURA):	Arloka eta auzokako batzarrak: Auzoetako txokoak, Kultur Etxea, Pleno aretoak. Batzar bakoitzetik ordezkari batek jarraipen-batzordea osatzen dute	
PARTEHARTZAILEAK:	Auzotarrak eta elkarteak, kirola, kultura, merkatariak, gazteak	
ARDURADUNAK:	Parte-hartze zinegotzia eta alkatea	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Auzo guztietara goaz eta udaleko diruak nondik datozen eta zelan erabili ahal diren azaltzen da. Egiteko proiektuez ere hitz egiten da. Gero herritarrek hitz egiten dute. Akta emoten da. Auzo bakoitzerako egitasmo zehatzak aurkeztu dira. Aktak igorre.net-en eskuragai.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Power point batez azalpena. Herritarren hitza. Aurkezle-moderadore lanak alkatearen esku sarritan	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Urtero jende bat mantentzea eta herritarrak aurrekontuen inguruan informatuak egotea. Ohitura-edo bihurtu dira aurrekontu parte-hartzaileak. Bosgarren urtearen ostean, herritarrek nekez ulertuko lukete bat-batean desagertzea	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA: Aurrekontuetako aktak	NON DAGOEN: Webgunean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA	
Helburuen betetze-maila:	Bajua
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Guztiz 100-200 pertsona daude urtero. Giroa ona izaten da, nahiz eta auzo batzutan liskarrak ere izan. 2008-2009. Urtean 200 lagun 2010-2011. Urtean 60 lagun 2012. 125 lagun Batzar jendetsuenak 30 lagun ingurukoak
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Ona, talde politiko guztietako ordezkariak izaten dira. Komunikazioa: kartelak, buzoneoa, Begitu, Gorbeialde, webgunea... Alkatearen esku protagonismoa eta erantzukizunaren zatirik handiena batzarretan, gaiak aurkeztu, galderak erantzun...
Metodologiaren egokitasuna:	Hobetu beharrekoa. Nola???? Ik. Aurreko galdera
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Ertaina
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Eten ezin dan prozesua da.      EMAITZAren ikuspegitik: Herritarren ebazpen maila handitu behar da.
IKASITAKOAK:	Urtero egin beharrekoa. Lan eginez gero, posible dela erakutsi da



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

SISTEMATIZAZIO-FITXA:		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-27
DESKRIBAPENA		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Igorreko berdintasunerako diagnostikoa eta 1go plana</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Berdintasunera heltzeko plana egitea	ZEHATZAK Herritarrekin zehaztea plana
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2008-2010	BENETAKOA 2008-2010. Diagnostikoa egina, plana onartuta baina teknikari barik
LANERAKO GUNEAK (EGITURA):	Kultur etxean egindako arlo ezberdinetako batzarrak. Herriko bi pertsonak koordinatu eta garatu zuten. Matxalen Legarreta eta Idoia Legarreta. Batzorde zabalago bat ere batu izan da gaiaren inguruan.	
PARTEHARTZAILEAK:	Taldea eta egitura ezberdinetako kideak eta herritarrak.	
ARDURADUNAK:	Berdintasun zinegotzia	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Aurre-diagnostikoa egin zen, gero diagnostiko landu zen talde dinamiketan eta azkenengoz plana zehaztu zen, hau ere talde dinamiketan. Talde ezberdinetan landu zen ,gazteak, eskolak, jubilatuek,,,,,Gehiengo emakumeak.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Lan talde ezberdinak	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Diagnostiko eta plana Igorrerako oso zehaztua izatea.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Igorreko Berdintasun Diagnostikoa	Webgunean
	Igorreko 1go Berdintasun plana	Webgunean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA		
Helburuen betetze-maila:	Altua	
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	200 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten. Giro ona. Ez zen liskarrik ezta beste intzidentziarik egon.	
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Talde dinamikoak, komunikazio ona. Komunikazioa: kartelak, deialdi pertsonalak, Begitu, Gorbeialde, webgunea....	
Metodologiaren egokitasuna:	Ona, inork ez zuen parte hartzeko eragozpenik izan	
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Altua	
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik parte-hartze handiko prozesua	EMAITZAren ikuspegitik: Sortu den dokumentazioa Igorrerako zehaztuta dago.
IKASITAKOAK:	Herrirako herria ezagutzen duen pertsonak egiten duenean lan, emaitzen kalitatea handiagoa da.	



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA Gotzone Amuriza		NOIZ? 2011-11-27
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Agenda 21eko Ekintza plana eratzea 2010-2018 (Herrian egiten den bigarrena, Agenda 21en barruan).</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Gure herriaren garapena zehaztea	ZEHATZAK Hurrengo urteetako arlo guztietako ekintzak zehaztea
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2010 martxo-a-abendua	BENETAKOA 2010 martxo-a- bukatu gabe
LANERAKO GUNEA (EGITURA):	Gaikako batzarrak- ONDOAN enpresak egin zuen koordinazioa	
PARTEHARTZAILEAK:	Herritarrak eta teknikariak	
ARDURADUNAK:	Parte-hartzea zinegotzia- A21eko teknikaria	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Gaikako batzarrak- txostenaren zirriborroa- teknikoekin kontrastatu esandakoak bideragarriak diren taldeen arteko adostasuna Oraindik egin gabe: txosten definitiboa egin eta herriari aurkeztu	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Batzarrak: orain arteko azaldu eta herritarren ekarpenak batu.	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Ekintza planeko txostenaren zirriborroa izatea	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA: Ekintza planeko txostena	NON DAGOEN: Ez da publikoa



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA	
Helburuen betetze-maila:	Bajua, oraindik ez baita prozesua bukatu
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Ez oso altua. Giroa, ona
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Ez oso ona. Komunikazioa: kartelak, buzoneoa, webgunea, Begitu, Gorbeialde.....
Metodologiaren egokitasuna:	Talde dinamikak falta ziren, partehartze aktiboagoa izateko
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Bukatzean baloratuko da.
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Talde dinamikak beharrezkoa dira.      EMAITZAren ikuspegitik: <b>Bukatu gabea</b>
IKASITAKOAK:	Talde dinamikak dituen prozesuak bultzatu Asistentzia sakonago landu beharra



<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA Gotzone Amuriza		NOIZ? 2011-11-27
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Euskara plana diseinatzeko parte-hartze prozesua</b>	
HELBURUA:	OROKORRA: Euskararen erabilera hobetu eta handitu	ZEHATZAK: Euskara plana sortu
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2002-2003	BENETAKOA
LANERAKO GUNEAK (EGITURA):	Gaikako batzar dinamikoak	
PARTEHARTZAILEAK:	Talde, egitura eta herritar ezberdinak	
ARDURADUNAK:	Euskara zinegotzia	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Herritarren artean dinamizatzaileak formatu, dinamizatzaile horiek izan ziren arlokako batzarrak kudeatu zituztenak. 3 batzar arlo bakoitzean: Diagnostikoa- helburuak- ekintzak. Informazioa batu eta prozesuaren dinamizatzaileak (Elhuyar) planaren txostena garatu.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Talde dinamikak	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Euskara planeko teknikari bat izatea plan hori aurrera eramateko. Herritarrekin osaturiko batzorde eragilea.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Euskara plana	Webgunean-Udalean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukera!

BALORAZIOA	
Helburuen betetze-maila:	Handia
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Handia, giro alaia
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Ona.
Metodologiaren egokitasuna:	Oso ona
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Handia
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: <b>Parte-hartze handia</b> EMAITZAren ikuspegitik: <b>Herritarren eginiko plana</b>
IKASITAKOA:	Herritarrek eginiko lanaren kalitatea handiagoa da. Herrian egindako lehen parte-hartze prozesu arrakastatsua, kolore guztietako 200 lagun baino gehiagoz.



# IGORREKO HERRIA

Danon aukera!

<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-27
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Immigrazio-plana</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Igorretar barriak herritar bihurtzeko ekintzak zehaztea	ZEHATZAK Immigrazio-plana zehaztu
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2008	BENETAKOA 2008
LANERAKO GUNEA (EGITURA):	Gaikako batzar ezberdinak	
PARTEHARTZAILEAK:	Igorretar barriak eta bertakoak	
ARDURADUNAK:	Berdintasun zinegotzia	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Landu nahi ziren gaiak zehaztu ziren batzar orokor baten eta gaikako batzarrak egin ziren: euskara, lana....	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Gaikako batzarra. Azalpenak eman eta bertaratutakoak beraien iritzia eman.	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Immigrazio-planaren dokumentazioa	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Immigrazio-plana	Webgunean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA	
Helburuen betetze-maila:	Ertaina
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	60 pertsona, giro ona. Boliviarrak jatorrikoak eta sahararrak
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Erdaraz ziren batzarrak, komunikazioa batzutan zaila zen hizkuntzagaitik: Deialdi pertsonalak, kartelak, Begitu, Gorbeialde...
Metodologiaren egokitasuna:	Bajua, talde dinamika gutxi
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Sortutako dokumentua nahiko orokorra da, edozein herrirako izan ahal da. Ez da Igorrerako zehatza.
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Talde dinamikak beharrezkoak dira. EMAITZAren ikuspegitik: Herritarren parte-hartzea garrantzitsua, herrira egokitutako emaitzak izateko
IKASITAKOAK:	Parte prozesu bat arrakastatsua izateko, herritik, kaletik, elkarteetatik ere bultzatu behar da. Udalaren bultzada hutsa ez da nahikoa



# IGORREKO HERRIA

Danon aukera!

<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-27
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Herriko jaien antolaketa, jaietako komisioa</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Jaiak herritarren parte-hartzea bideratuz <b>antolatzea</b>	ZEHATZAK Herritarrak antolatzea <b>Jai herrikoi eta parte-hartzaileak sustatu</b>
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA Urtero urtarriletik ekainera	BENETAKOA Urtero urtarriletik ekainera
LANERAKO GUNEAK (EGITURA):	Kultur zinegotzia eta beste pertsona bi dira koordinazioa egiten dutenak. Astero herriko talde eta koadrilekin batzarra	
PARTEHARTZAILEAK:	Talde eta koadrila ezberdinak	
ARDURADUNAK:	Kultur zinegotzia eta beste bi pertsona. Batzordea legeztatutako elkarte da, izaera juridikoa duena eta kulturako zinegotzia da presidentea.	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Urtarrilean hasten dira batzarrak eta ekainera arte zehazten joaten dira jaiak. Jaietan, talde edo koadrila bakoitzak ardura bat izaten du. Txosna ere jartzen dute eta beraiek kudeatzen dute. Jaietako programako liburuxka, publizitatea saldu, inprimatu eta banatu.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Deialdi publikoa egiten da. Asteroko batzarrak, lanak banatzen dira eta bakoitzak bere arloa lantzen du.	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Jaietan parte-hartze handiagoa izatea. Jai herrikoiak.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Balorazio dokumentuak	Kultur Saila



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA		
Helburuen betetze-maila:	Handia	
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Gazteek hartzen dute parte nagusiki. Giro oso ona, urduritasuna jaiak hurbiltzean, asistentzia urtero aldatu da baina handia. Nahiz eta batzuk batzarretara ez joan, antolaketan parte hartzen dute.	
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Komunikazio oso ona.	
Metodologiaren egokitasuna:	Urteak pasa ahala aldatzen joan beharrekoa, gizartea eta gazteriaren inplikazio eta lan maila aldatzen baitoa.	
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Handia	
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Bakoitzak bere ardurak bete behar ditu.	EMAITZAren ikuspegitik: Parte-hartze handiagoa herritarrek antolaturiko jaietan
IKASITAKOA:	Adin guztietako jendeak parte hartzen saiatu behar da, programazioa oparoagoa izan daiten.	



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

SISTEMATIZAZIO-FITXA:		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-28
DESKRIBAPENA		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Mugikortasun-plana egitea</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Igorreko 1go mugikortasun plana egitea	ZEHATZAK Herritarrekin herrian zelan mugitu erabakitzea
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2008	BENETAKOA 2008
LANERAKO GUNEAK (EGITURA):	Herri batzarrak.	
PARTEHARTZAILEAK:	Herritarrak	
ARDURADUNAK:	Bitaka – Parte-hartze zinegotzia	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Diagnostikorako 1go batzarra egin zen eta 2.enean egin beharrekoen proposamenak landu ziren. Bitaka enpresak dinamizatu zituen batzarrak. Dokumentua sortu zen eta herritarrei aurkeztu.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Diagnostikoa egin zuten eta hortik abiatuta eta batzarretan landutakoarekin dokumentua sortu zen. Batzarretan, azalpenak eta gero, herritarrek hitza.	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Mugikortasun plana herriaren neurria.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Mugikortasun plana	Webgunean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA		
Helburuen betetze-maila:	Handia	
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Parte-hartzea, herritarrak eta pertsonalki gonbidatutakoak, trafikoko Ertzainak, autoeskoletakoak, eskoletakoak.....	
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Komunikazio batzarrean ona. Power point bidez gaia oso ondo azaldu zen. Komunikazioa: inbitazio pertsonalak, kartelak, luminosoak, webgunea, Begitu, Gorbeialde.	
Metodologiaren egokitasuna:	Batzarretan parte-hartze handia egon zen. Talde dinamikarik ez.	
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Handia	
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Egindako aurre-diagnostikoak asko lagundu zuen prozesuari hasiera emon eta hobeto ulertzeko	EMAITZAren ikuspegitik: Dokumentu erreala herrirako.
IKASITAKOAK:	Adituak batzarretan egotea garrantzitsua da, batez ere, herrikoak baldin badira	



<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
<b>PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN</b>		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-28
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>Plenoak</b>	
HELBURUA:	OROKORRA Plenoa erabaki gune bat izan daitela. Gardentasun eta parte-hartzea indartu. Herritarrei zuzenean udaleko ordezkarien aurrean berba egiteko aukera eman.	ZEHATZAK Herritarrak udal gaietaz jakitun egotea eta beraien eritziak emon ahal izatea.
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA Hamabosteroko astelehenetan, abuztuan kenduta	BENETAKOA Hamabosteroko astelehenetan, abuztuan kenduta
LANERAKO GUNEA (EGITURA):	Pleno batzarra	
PARTEHARTZAILEAK:	Zinegotziak, alkatea, idazkaria, herritarrak	
ARDURADUNAK:	Alkatea, idazkaria	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Gobernu-batzorderik ez dagoenean, plenoan erabakitzen dira udal gaiak (edo alkate dekretuz, baina gauza gehienak plenoan eztabaidatzeko ahalegina egiten da). Gai-ordeneko gaiak azaldu eta bozkatzen dira. Batzar bukaeran, herritarrei ematen zaie hitza, gai-ordeneko gaietaz buruz eritzia emon galdera egin edo beste gai bati buruz hitz egiteko.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Bilateral da, udal mahaia eta beste aldean herritarrak. Azalpenak alkate edo zinegotziak, moderatu alkateak.	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Plenoak herritarren gune bezala zabaltzea.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Pleno bakoitzeko aktak	Webgunean
	Plenoen bideozko grabazioa	Webgunean
	Deialdiagaz bandoak Plenoetan hartutako erabakiagaz bandoak	



# IGORREKO HERRIA

Danon aukera!

BALORAZIOA		
Helburuen betetze-maila:	Handia	
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Herriko jende ugari erreferentziatzen dauka. Bai informazioa izateko edo beraien azalpenak emateko gune bezala.	
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Kartel bidez egiten da deialdia, ostean beste kartel baten bidez bertan erabakitakoaren laburpena egiten da. Alkateak irratian azalpenak ematen ditu, gertatutakoari buruz.	
Metodologiaren egokitasuna:	Ona	
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Handia	
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Plenoak zabalak eta herritarrek joan ahal dutenean egin behar dira. Herrian asko errotutako zerbait da. Norbaitek kexatzera joan nahi badu, badauka horretarako aukera hamabostean behin	EMAITZAren ikuspegitik: Herritarren gune guzok azaltzeko eta informazioa izateko
IKASITAKOAK:	Plenoari ematen dioguna baino garrantzi handiagoa eman behar zaio eta herritarrei horretara bultzatu. Udala eta herritarrak kontaktua izateko gune da.	



<b>SISTEMATIZAZIO-FITXA:</b>		
PARTE HARTZEAN OINARRITUTAKO PROZESUAK EDO ETA ESPERIENTZIAK IGORREN		
FITXA HAU BETE DUENA <i>Gotzone Amuriza</i>		NOIZ? 2011-11-28
<b>DESKRIBAPENA</b>		
ESPERIENTZIAREN IZENA:	<b>San Juaneko espaloia egiteko prozesua</b>	
HELBURUA:	OROKORRA San Juaneko espaloia egin	ZEHATZAK Auzotarrak erabakitzea zelango espaloia eta nondik nahi duten.
EPEA EDO DATA	AURREIKUSITAKOA 2009	BENETAKOA
LANERAKO GUNEAK (EGITURA):	Auzotarrekin batzar zabalak	
PARTEHARTZAILEAK:	San Juaneko auzotarrak, alkate, teknikari eta zinegotziak	
ARDURADUNAK:	Alkatea, Parte-hartze zinegotzia	
ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:	Auzotarrekin batzarrak aurreproiektu gabe, beraiek esaten dutenaren arabera egiteko. Aurreproiektua, proiektu horren zehaztapenak zehaztu. Onartu.	
ERABILITAKO METODOLOGIA (NOLA):	Plano bidez azalpenak. Erakusketa eta Auzotarren iritzia. Idatzizko inkesta ere jarri zan erakusketagaz batera	
EMAITZAK (LORTU DUGUNA):	Espaloia gehiengo onarpenarekin egitea.	
SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA:	IZENA:	NON DAGOEN:
	Proiektua	Hirigintza sailean



# IGORREKO HERRIA

Danon aukerak!

BALORAZIOA	
Helburuen betetze-maila:	Ertaina. Azkenean, udalak egin behar izan zituen zehaztapenak. Auzotarrak ez zuten behar beste batzar egin nahi.
Asistentzia, parte-hartzea, giroa:	Giroa, liskarrak, auzotarren lurak ikutzen zirelako espaloia egiteko. Beraien arteko liskarrak, azkenerako, gehiengoz onarpena.
Egituren, solaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa:	Komunikazioa, auzoan. Planoak, inkesta.
Metodologiaren egokitasuna:	Bajua. Batzarrak oilategiak ziruditen.
Batzuen eta besteen espektatiben betetze-maila:	Ertaina
ONDORIO OROKORRAK:	PROZESUAren ikuspegitik: Lurrak medio, ia beti liskarrak      EMAITZAren ikuspegitik: Denok adostutako espaloia
IKASITAKOAK:	Parte-hartze prozesuetan herritarrak ere lan egin behar dutela sinestaraztea herritarrei. Herritarrek ez dute erabaki zailik hartu nahi, horretarako udala dagoela argudiatuz.